



Joxan Azkue mendizale asteasuarra zendu da, elur-jauziak harrapatuta

PIRINIOAK ▶ Unai Otamendi
andoaindarrarekin Anayetera
bidean izan zuen istripua ostiralean

HILETA ▶ Atzo aurkitu zituzten
hilotzak; Azkueren aldeko hileta
elizkizunak, gaur, bere jaioterrian ▶ 6

TOLOSA ▶

Laskorain
eta Aralar
taldeen
garaipena
asteburuan

Hegoaldek eta
Tolosak, ordea,
galdu egin dute ▶ 2, 3

Zabalik da Honduras, India eta Ekuador laguntzeko Merkatu Txikia

IBARRA ▶ Harrera ona izaten ari dela dio
Ibarratik Misio Taldeak; igandera bitarte
bisitatu ahal izango da, plazako lokaletan ▶ 7

ASTEASU ▶

Txapartegik egindako tortura salaketen ahozko bista, gaur

2001ean «gaizki» artxibatu eta, orain,
jarritako helegitea onartu egin dute ▶ 5

I. TERRADILLOS



hitza **txokoa** lagun

▶ HITZA harpidedunen artean...

... Aio, Leitze! Leitzako Euskararen Hiztegia
liburuaren 3 ale zozketatuko ditugu

Zozketan parte hartzeko deitu: 943 65 56 95 telefonora.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak ostero



FUTBOLA ▶

Liderra garaitu ezinik, lehen postuak gero eta urrunago Tolosak

2 eta 0 galdu zuen Sestao taldearen aurka Llanas zelaira eginiko bisitan; zazpigarren dira orain sailkapenean

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuko etenaldiak ez dio mesederik egin Tolosa C.F. taldeari eta poltsikoan punturik gabe bueltatu behar izan zuen jardunaldi honetan. Sestaori eginiko bisitan; porrotarekin sailkapeneko buruan diren taldeengandik gero eta urrunago dago talde urdina. Zazpigarren postuan daude 20

punturekin, eta lehen postua 13 puntura dute. Sestao taldea bera dago, hain zuzen, lehen postu horretan.

2 eta Oeko markagailuarekin amaitu zen Llanas zelaian herenegun Luluagaren mutilek jokaturako partida. Bisita ez zuen batere erraza; izan ere, taulako liderrak diren sestaotarrekin etxean jokaturako neurketak guztiak irabazi dituzte den-

boraldia hasi zenetik. Aurkaria arazorik gabe nagusitu zen bere zelaian, Tolosako defentsa gaindituz. Tolosarrek, gainera, ez zituzten aukera gehiegi izan markagailuari buelta emateko. Lehen gola lehenengo zatian heldu zen etxekoentzat, Koldoren eskutik; bigarrena, berriz, Aitor Callek egin zuen 78. minutuan. Azken honen aurretik, gainera, 63. minu-



Tolosako jokalaria Berazubín. i.g.

tuan, Sestaok bere aldean hantzeko aukera izan zuen; izan ere, epaileak penaltia ikusi zuen. Koikili izan zen penalti hori jaurtitzeko ardura hartu zuena, baina bere baloiak zutoinean jo zuen eta ez zuen gola gauzaterik izan.

Tolosak datorren jardunaldiko hiru puntuak batu behar ditu lehen postu horietan amestean jarraitu ahal izateko.

SESTAO ▶ 2

TOLOSA ▶ 0

Sestao. Molina; Olaeta; Koikili; Iker Leon; Beñat; Añibarro; Unai (Txomin, 72 m.); Koldo; Aitor Calle; Vidal (Yartu, 80 m.) eta Etxaniz (Arzubiaga 67 m.).

Tolosa. Apeztebea; Lacalle (Jauregi, 75 m.); Unai; Jon; Aimar; Romero (Azpiroz, 65 m.); Crespo; Orue; Irazusta (Naldaiz, 44 m.), Regillaga eta Artola.

Golak. 1-0: Koldok (23m.); 2-0: Aitor Callek (78 m.).

Epailea. Fernandez Barrenak egin zituen epaile lanak Sestaoren eta Tolosaren arteko norgehiagokan.

Txartelak atera zizkien Tolosa taldeko Apeztebeari, Romerori eta Naldaizi.

Datuak. Llanas zelaian 800 ikusle bildu ziren.

ARETO FUTBOLA ▶

Liderraren aurka galdu du Hegoalde, asteburuan Madrilera eginiko bisitan

Futsi Navalcarneroren aurka 6 eta 2ko emaitzarekin amaitu zuten

ERREDAKZIOA

Ez zuten garaipena etxera ekartzetik izan Hegoaldeko neskek; izan ere, liderraren etxean galdu egin zuten iragan asteburuan jokaturako partidari. Partida oso zaila zuten aurrez aurre zuten aurkariak, Futsik, hamar jardunalditan ez baitzuten partidurik galdu. Zortzi garaipen eta bi berdinketa lortu zituen; berdinketak, hori bai, ez ziren aspaldiko kontuak: 8. jardunaldian etxean Mainfer Zaragozarekin 4-4 egin zuen, eta 10. jardunaldian Murtzian

5-5 amaitu zen partidua. Haien aldean Hegoalde ibilbide eskasa du etxetik kanpoko emaitzetan, guztiak galdu baitzuten ordura arte, berdinketa bat izan ezik. Oraingoan ere ezin izan dute estatistikarik hautsi.

Lehen 10 minutuetan ederki eutsi zieten madrildarrei, baina hortik aurrera etxekoak nagusi izan ziren ezbaierik gabe, eta joko ona erakutsi zuten. Tolosarre, aldez, jokoan intentsitate faltatu zitzaizen eta defentsa lanean indar gehiagoz ari zetea ere beharrezkoa zuten Futsi Navalcarnero aurkari go-

gorraren aurrean. Partida erabakita utzi zuen gakoetako bat etxekoan hirugarren gola izan zen: Hegoalde 2 eta 1 jartzea lortu zuen atsedendaldira iritsi baino minutu bat lehenago, baina lehen zatia amaitzeko segundo baten falta zela sartu zuen Eva Manguanek —iturrien arabera, Ligako jokalaria onenetakoa, onena ez bada— 3 eta 1ekoa.

Hegoalderen aldetik, Anek ez zuen jokatu gaixorik zegoelako, Sarah Ugarte lesioagatik eta Isa Barriok ere ez zuen jokatzetik izan zigortuta zego-

FUTSI NAVALCARNERO ▶ 6

HEGOALDE ▶ 2

Golak. 1-0: Eva Manguanek (10 m.); 2-0: Silviak (18 m.); 2-1: Maiderrek (19m.); 3-1 Eva Manguanek (19 m.); 4-1 Eva Manguanek (26 m.); 4-2: Ana Berziano (30 m.); 5-2: Eva Manguanek (33 m.); 6-2: Fabik(34 m.).

lako —beste hiru neurketa gehiagorako zigortu dute; guztira lau jardunaldi izango da aulkian, beraz—.

Datorren larunbateko neurketa, hilaren 17koa, oso garrantzitsua izango da, Hegoalde Valladolid hartuko baitu Usabalen, eta segidan hiru asteko atsedena hartuko baitute.

XAKEA ▶

Xake Elkarteak Gipuzkoako Txapelketa amaitu du

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Gipuzkoako banakako Txapelketa amaitu zen. Zazpi larunbat jarraian probintzia osoko xakelariak nor baino nor aritu dira Gipuzkoako hainbat herritan. Tolosako Xake Elkarteak bi ordezkari izan zituen bertan, biak ala biak bigarren mailako txapelketan: David Moreau eta Andres Bustamante. Moreau oso ondo hasi zen, baina txapelketaren erdialdera puntuak galtzen hasi zen eta mailaz igotzeko aukera guztiak galdu zituen, jakitera eman dutenaren arabera. Tajuz bukatu zuen, ordea, eta azkenean zazpigarren izan zen.

Bustamante txapelketa eskasa egin zuen oso. Partida onak eta akats larriak tartekatuta zituen eta hamaikagarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Bestalde, hilaren 18an, igandean, Tolosaldeko Eskolarteko taldeko Txapelketa jokatu dute. Tolosako Xake Elkartearen izango da (Berdura plaza, 2) 11:00etatik aurrera. Lauko taldeek hartuko dute parte, eskualdeko hainbat eskolatatik etorriak.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Tolosa. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldia, 3 logela eta 2 komun. Oso eguzkitsua. Ezin hobea. Etxesagasti. 943 69 68 56 telefono zenbakia.

Tolosa. 96 m²ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldia, 3 logela eta komun 1. Trasteleku eta garajearekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Bizitzeko moldatutako bulegoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Segura. Banakako baserria salgai, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Legorreta. Hiru logela dituen etxea berritzea. Igogailua du. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Amezketeta. Elkarri atxikitako etxe berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Berritua. Ikuspegiarik. 38.000.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Egongela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Berokuntza, igogailua eta trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskalera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Tolosaldean.

SASKIBALOA ▶

Kadete eta senior mailako bi taldeek, irabazi

Tolosa Aralar-ek 72 eta 69 Santurtziren aurka; Easo-Loyola 38 eta Tolosa Argysan 69

I. ETXEBESTE

Tolosako saskibaloijokalariek pozarren dira asteburu honetan lortutakoarekin. Izan ere, bi taldeek, bai senior eta bai kadete mailakoek, irabazi egin dituzte zegozkien partidua. Maila Inter-autonomikoan diharduen senior mailako Tolosa Aralar taldeak etxean izan zuen neurraketa, eta 72 eta 69 irabazi zion Santurtzikoari.

Bestalde, kadete mailako Tolosa Argysan taldeak Donostiara joan behar izan zuen larunbatean norgehiagoka jokatzeko. Hango Easo-Loiola taldeari irabazi egin zioten tolosarrek, 38 eta 57. Joaneko patida zen Tolosa Argysanek eta Easo-Loiolak elkarren aurka jokatuakoa.

Datorren astean kanpora joan beharko du Tolosa Aralar-ek, Leioa Artea taldearen kontra aritzeko. 19:00etan hasiko da norgehiagoka. Kadete mailako Tolosa Argysan taldeko jokalariek, berriz, etxean geratuko dira, Usabalen baitute hitzordua larunbatean. Itzulerako partidua jokatuko dute Easo-Loiolakoen aurka; 12:00etan hasiko da partida, Usabalen.

ARETO FUTBOLA ▶

4 eta 7 irabazi dio Laskorainek Bilboko Iturriondo taldeari

Saldias kapitainak bost gol sartu zituen; Alonsok eta Ekhi, berriz, bana; epaileek «lan lotsagarria» egin zutela diote

IRATXE ETXEBESTE

Azken jardunaldietan behar baino kale gehiago egin ostean, garaipen garrantzitsua lortu zuten Laskorainek larunbatean Bilboko Txuridinaga kiroldegian. Izan ere, 4-7 irabazi zioten Bizkaiko Iturriondo taldeari. «Hiru puntuak beharrezkoak genituen atzean utzi dugun hilabete beltza ahaztu, eta datozten partiduei gogoz eta konfiantzaz beterik ekin ahal izateko», adierazi dute Ikastolako areto futbol taldeko jokalariek. Eta lortu egin zituzten.

Sailkapeneko hamargarren postuan zegoen Iturriondok ez zirudien, hasiera batean, behintzat, mendean hartzeko talde erraza izango zenik. Etxekoek 1 eta 0ekoa egin zuten areaz kanpoko jaurtiketa bat sare artera bidali ondoren. Tolosakoak, ordea, ez ziren kikildu, eta estrategiako jokaldiei etekina atereaz, partiduari buelta ematea lortu zuten. Bigarren zatian, Egizabalen mutilek ez zuten ordura arte erdietsitako abantaila saldu nahi izan, eta ez bizkaitarren ahaleginek, ez eta epaileek «lan lotsagarria» ere, ezin izan zuten hiru puntuen jabetza aldatu.

«Partiduko protagonisten artean, goleatzaileak aipatu behar dira. Saldias, taldeko kapitainak eta birrikak, bost gol sartu zituen; bere ezker hilgariak ez zuen bilbotarrekin inongo kupidarik izan. Aurten marka guztiak hausteko prest dagoela dirudi. Alonsok, Tolosako neskatilaren printzeak, larunbat gauetan erabiltzen duen usaimena eta azerikeria beraz baliatuz, falta jaurtiketa batean, etxekoen defentsa eta atezaina ezustean harrapatu ostean, bere aurtengo estrena nako gola sartu zuen. Ekhi gazteak ere aurkariaren atea zultzea lortu zuen, ospakizunean, bere begirada Leiza aldera zuzendu zuela iruditu zitzaigularik gainontzeko taldekideei», esan dute Laskorainek jokaldiaren berri ematerakoan.

Egizabal entrenatzaileak eta Domentxe, Telletxea, Calixto, Alonso, Amatriain, Saldias, Gil, Barriola eta Ekhi jokalariek ekarri zuten larunbatean garaipena Tolosara. Ordea, Javi delegatuak eta Altuna eta Yustos jokalariek, «arrazoi ezberdinek bultzatuta», ezin izan zuten taldearekin egon; aste honetako hiru puntuak «haiei eskainiak dira, beraz».

Datorrena, Bizkaian

Bestalde, «Altuna perla ilehori» baloia ukitzen hasi da jada «hilabeteetan zehar bere belar minduaren gatu izan ondoren». Min hartuta egon denez, ezin izan du Mikel Altunak aspaldi honetan lan saiorik egin, eta honezkeroko partidua jokatzeko irrikaz dagoela adierazi du. Bere taldekideek areago jo dute: «Badirudi zalegoaren irrikak hasetzeko prest izango dugula epe motzera».

Datorren astean Bizkaia aldera joan beharko dute Laskoraineko jokalariek. Izan ere, Gernika taldea izango dute aurrez aurre. Partidu zaila izango da larunbateko Egizabalen mutilentzat, Gernika taldea sailkapeneko lehen postuan dagoelako. Gainera, Zilarrezko Mailan aritutako jokalariz jositako «talde sendotzat» dute Tolosakoek Gernika. Itxaropena ez dute, ordea, galdu nahi, eta emaitza ona lortzeko bidean konpromisoa eta lana «ezinbestekoak» izango direla diote. Azkenik, harrobiko taldeei dagokienez, 6 eta 0 irabazi zuten Alonsoren mutilek; Murrak zuzendutakoak, berriz, 4 eta 0 galdu.

MENDIA ▶

Urteko azken mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek

Tolosa-Mandubia ibilbidea egingo dute, eta ondoren babarrun jatea Mandubian

I. ETXEBESTE

Alpino Uzturre mendi elkarrekin urteko azken mendi irteera antolatu du datorren asteburu honetarako: hilaren 18rako, hain zuzen ere. Tolosa eta Mandubia arteko ibilbidea egingo dute irteerara joateko izena ematen dutenean, eta egun horretan, Tolosako zezen-plazatik aterako dira, 09:00etan.

Izena eman nahi dutenek Alpino Uzturren egoitzara joan beharko dute aste honetan (Gudari kalea 5, behe) edota telefono zenbaki honetara deitu: 943 65 27 89.

Federatu txartela lortzeko

Oargi mendi elkartekoek jakitera eman dutenez, aukera dago mendirako federatu txartela egiteko. Datorren urterako federatzeko asmoa dutenek Oargi Tolosan duen egoitzara joan beharko dute, eta bertan izena eman. Elkarteko arduradunek esan dute asteartean, asteazkenean eta ostegunean izango dela horretarako aukera asertu. Ordutegia ere zehaztu dute: 20:00etatik 21:00etara, hain zuzen.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernia@inmoernia.com
www.inmoernia.com

Alegia. 3 logela, sukaldea eta 2 bainugela. Egoera oso ona. Berria bezala.
Alto. Etxe bifamiliarr ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.
Asteasu. 250 m²-ko etxe bifamiliarra. Eraikuntza berrikoa.

Belautza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.
Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.
Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.
Ibarra. Lokal komertziala alokairuan, 60 m²-koa. Salmentan edo alokairuan.
Ibarra. Euskal Herria kalea. 3 logela. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua. 249.420 euro.
Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 130.420 eurotik aurrera.
Tolosa. Montezku. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratz eta txabolarekin. 204.345 euro.
Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Belate. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza altua igogailuarekin. Trasteleku ederra. 237.400 euro!
Tolosa. Berazubi. 2 logelako etxebizitza. Bizitzera sartzeko modukoa. 237.400 euro!
Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai. 225.380 euro.
Tolosa. Sputnik. Duplex altua. Berritua.
Tolosa. Larramendi. 96 m². 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.
Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza bertzeko igogailuarekin.
Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!
Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.
Tolosa. Laskurain. 80 m² bizitzeko jartzeko modukoa. 297.500 euro.
Tolosa. Ibarrik gertu. Duplex-a garaje ibiarekin. Guztiz berritua. 297.500 euro.
Tolosa. Erdialdean (oso toki onean) eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela eta bainugela. 371.425 euro.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126m²-ko etxebizitza berritua. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.
Tolosa. San Frantzisko-Pedro de Tolosa inguruan, toki paregabean! 4

logelako etxebizitza ederra, garajearekin salgai.
Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.
Tolosa. Geltokialdea, Alberdi berrian. Garaje itxia alokairuan.
Tolosa. Erdialdean 253m²-ko lokala (bi solairuan banatua) salgai.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.
Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.
Tolosa. Pablo Gorosabel, 40 m²-ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. Usabal. 2.000m²-ko pabilioi industrialia alokairuan.
Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin salgai. Egongela su bajuarekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.
Villabona. 24.400 m²-ko lursaila eta 140m²-ko borda.

ANOETA ▶ GIZARTEA



Uraren autobusa badoa

N. Urbizu ▶ Hainbat herritan ikusi izan da autobus zelebre bezain bitxi hori. Izan ere, horixe izan da Kutxak nahi izan duena, haurren atentzioa deitzea. Honela gertatu zen atzokoan, Anoetan, kolorez betetako autobusa haurrei ura nola erabili eta haren erabilera okerraren gainean informazioa emateko asmoz izan zena. *Urik onena, alferrik galtzen ez dena* lelopean egindako kanpaina izan da, eta atzokoa izan zen azken eguna. Hain preziatua eta eskasa —leku gehiegitan— den edateko uraz aritu ziren, besteak beste. Autobusaren barruan, etxeko hainbat txoko zeuden, sukaldea eta komuna, esaterako: dena oso modu erakargarrian. Etxean eta ura dagoen edozein lekutan aplikatu beharreko heziketa jaso zuten haurrek atzo autobus polit horren barruan. Hemendik aurrera, entzundako hori guztia aplikatzea besterik ez da falta. IMANOL GARCIA

VILLABONA ▶ MENDI IRTEERA



Mendizaleek ibilbidean aurkituko dituzten parajeetako bat. HITZA

Iruñetik Gasteizera:
mendirik mendi
hainbat paisaia eder

27 kilometrotan barna, ongi prestatuta egon beharreko ibilaldi erakargarria antolatu du Aizkardi mendi elkarteak

NEREA URBIZU

Aizkardi mendi elkarteak oraingoan ibilbide luze eta interesgarri bat antolatu du: Iruñea inguruan hasi eta Gasteizen bukatzen den bidea, alegia. Irteera, igandean egitekoa da: 07:00ak inguruan hasiko da, Oladerra polikiroldegitik.

Ibilbideak Santa Luzia mendatean izanen du hasiera, gero Iturrietako mendietatik pasatzeko. Azazetako mendi-leporaino iristeko asmoa dute mendizaleek, bertatik Gasteizko Mendiek okupatzen duten lurraldea zapaldu arte. Hauekin muga egiten duen lurraldea Argantzu da, eta handik, Kon-

txako amildegiairen alboan, Azazetatik, Berrozi haran galduren iparraldean dauden muino garaietan zehar ibiliko dira, Tierras Blancas mendi-lepoarekin topo egin arte. Azkenaldian jende askoren ahotan dagoen Kapildui tontorraren inguruan dago aipatutako lepoa. Ezagun egin da metereologia antzemateko eta detektatzeko dorre ikaragarri bat eraiki berri dutela eta. Jakin ere hau izanen dela ibilbidean zapalduko den tontorrik garaiena.

Mendi muinora igo eta ondoren, Butxisolon dauden zelaie-tatik igaroko dira, ia ezkutuan dagoen Okina herria ikusteko

parada izanez. Ideia bat egiteko, hara joango den mendizalea Trebiñoko konterriarekin muga egiten duen herrietako batean egongo da. Handik, berriro ere Gasteizko Mendietan barna ibiliko dira, zehazki San Kristobal eta Pagogan mendien tontorretan.

Bide zoragarri honekin amaitzeko, pagadi trinkoetan zehar jaisteko asmoa dute, iparraldeko aldetik, Monasterioren partetik atzerapausoa besterik ez da ikusten. Kezkagarria benetan!

Konpromisoa hartzen badugu, Anoetak herri euskalduna izaten jarraituko du. Gu prest gaude! Eta zuek?

GORKA OTXOA AIZPURUA ETA EGOITZ LUISA ▶ ANOETARROK AUZOLANEAN PLATAFORMAKO EUSKARA, KULTURA ETA GAZTERIA TALDEAKO KIDEAK

30 DANITZA EMANALDIA

OINKARI dantza taldea (Villabona)
Dantza zuzendaria: Edo Murumendiaraz
Makela zuzendaria: Xanet Ansobera

&

LEINUA dantza taldea (Hiriburua)
Dantza zuzendaria: Roger Goyhenetxe
Makela zuzendaria: Elisabet Dubour

Abenduak 17 larunbata, gauko 22:30etan
Bilabonako Oieadens Kroidegian
Bilabonako Oieadens Kroidegian
Bilabonako Oieadens Kroidegian
Bilabonako Oieadens Kroidegian

www.aizkardi.net

hitza

GUTUN@K ▶

Anoetako Udalari

Anoeta herri euskalduna da. Horretarako, ezinbestekoa izan da Ezker Abertzaleak, ikastolak, Gazte Asanbladak, hainbat eragilek eta elkarteak, norbanakoek eta Udalak elkarlanean buruturiko urte luzetako lana.

Pauso garrantzitsuak eman dira herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta aipatzekoa da 2003ko apirilaren 4an buruturiko plenoan onarturikoa. Bertan Euskararen in-

guruko udal ordenantza berriari onartu ziren aho batez. Lehenik eta behin, Udalaren betebeharrak zehazten ziren, Udalak izan behar baitu euskararen erabilera eta zabal-kuntzaren eredu, eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko garaian bultzatzaile.

Honi guztiari muzin eginez, PNV-EA jaun eta jabe den Udalak anoetar euskaldunon eskubideak urratzen dihardu.

Azken adibidea orain antolatuta Mendi Astea da. 4 hitzaldietatik 3 gaztelaniaz dira!

Hau al da Udalak euskararekiko duen konpromisoa? Honela bermatzen al dituzte ano-

ASTEASU ▶ POLITIKA

Txapartegik egindako tortura-salaketa-aren ahozko bista, gaur

2001ean artxibatu bazioten ere, «gaizki» egin zutenez helegitea jarri eta onartu egin dute; 1999koa da kausa

JAIONE ASTIBIA

Dagoeneko Madrilen (Espainia) izanen da Nekane Txapartegi, gaur 10:30ean hiri horretako Plaza Castellako Epaitegian deklaratzekoa baita asteasuarra, 1999ko martxoaren 9an Guardia Zibilak atxilo eraman eta inkomunikazio epean eragin zizkion torturen salaketa dela medio.

Izan ere, atxilotetaren garai hartan egindako tortura-salaketa, 2001ean artxibatu egin zuten, baina gaizki, dirudienez.

Artxibaketa gaizki

«Salaketa Tolosako epaitegian egin nuen», azaldu zion HITZARI Txapartegik berak, «honek, ordea, nonbait gai horietan esku-menik ez zuela esanez, ez zuen kausa tramitera onartu eta Madrilerela (Espainia) igorri zuten, eta hark, 2001ean artxibatu egin zuen», kontatu zuen. «Baina epaitegi horrek salaketaren artxibatzearren jakinarazpenik ez zion inori egin», argitu zuten,

hori, ez zuten beharrezko tramiterik bete, eta «hori dela-eta Torturaren Aurkako Taldeak (TAT), helegitea aurkeztu zuen orduan, eta orain onartua izan da», argitu zuen asteasuarrak. Horrela, berak jarri zuen tortura-salaketa berriz ireki baino, horren inguruan ahozko bista bat izanen du bertan: «Berriz ere deklarazioa hartuko didate. 1999an jarritako salaketaren ahozko berrespena egingo dugu», zehaztu zuen.

TATek jarritako helegitea onartu eta bere kasua berriz ere mahai gainean egotea «hasiera batean, berriz ona» dela aitortu zuen Txapartegik, tortura kasu batez aritzea bera ontzat jo ezin daitekeen arren. Horrelako kasuak, torturen salaketei erreferentzia eginenez, «normalean epaitegietan ahaztu» egiten direla ohartarazi zuen.

Torturen frogak

«Kasu honetan urrats txiki bat gehiago da», ahozko bista ho-

netaz aritzean, «gainera, nire kasuan froga nahiko indartsuak ditugu, forenseak eta espetxeko medikuak egindako txostenak ditugu frogatzat», azaldu zuen, «baina, berriro egun haietako gogora ekarri beharko dut. Orduetik 6 urte pasatu dira, baina...», oroitarazi zuen.

Edozein moduz, bere kausak aurrera jarraituko duen edo ez galdetzean, bera ez zen oso baikor agertu: «Ez dut esperantza handirik. Aurpegia garbitzeko zerbaite izango dela iruditzen zait», zioen. «Ikusita beste horrelako gaiak nola tratatzen dituzten... Bai, gurean baditugu txostenak eta», aitatu zuen, «baina ez, ez dugu gauza handirik espero», baieztatu zuen: «Erabateko artxiboa egiteko tramitea izan daiteke, beste gehienekin egin izan duten bezala», nabarmendu zuen.

Nekane Txapartegi asteasuarra 1999ko martxoaren 9an eraman zuen atxilo Gurdia Zibilak eta Madrilen (Espainia) Tres Cantoseko komisaldegian



Nekane Txapartegi asteasuarra, gaur Madrilen da. IMANOL GARCIA

bost egunez eduki zuten inkomunikaturik eta, handik aterata, torturak eragin zizkiotela adieraziz, salaketa jarri zuen Tolosako epaitegian. Gaurko goiz honetan egun haietan jasandakoa berriro gogora ekarri eta deklarazioa egiten ariko da.

Era berean, berak bezala torturak jasan izan dituzten herritarrak gogoan izan zituen Txapartegik eta «Euskal Herriko eragile politiko, sozial eta sindikalei» dei egin nahi izan zuten torturaren aurka lan egin dezaten: «Behingoz, torturarenkin

bukatu egin behar dugu», aldarrikatu zuen.

Urte hartan, Torturaren Aurkako Taldeak urtero argitaratzen duen txostenaren arabera, Euskal Herrian jarduten duten Seguritasun Indarren batek atxilotuak izan eta inkomunikazio epea jasan izan zuten beste 98 euskal herritarrek jarri zuten tortura salaketa. «2000. urtean, 77 lagunek, eta 2001ean 99 lagunek, eta...».

Aipatu, bestalde, Madrilen ere orain egiten ari diren 18/98 auziaren epaiketan inputatua dela Txapartegi.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Ihoteetarako mozorroak eginez tailerrak eginen dituzte umeentzat

Asteburuan lehen saioa; gaur-biharrek izena emateko azken egunak

J. ASTIBIA

Hilaren 17an eta 18an, heldu diren larunbata eta igandean, beraz, umeentzat tailerrak egitekoak dira: 09:30ean hasi eta 13:00ak aldera arteko saioetan; 5urteetik hasi eta dozena bat urte bitartekoentzat bideratuta; Leitzako udaletxeko aurreneko solairuko areto handian.

Lagun talde bat da antolatzailerak, aisialdian umeekin eskulanak egitea gustuko dutenak denak. Kasu honetan, «ihoteetarako mozorroak egitea» otu zitzaion. Baina, gaine-

ra, «ohartu ginen, hain justu Leitzako ihoteak izaten diren tenore berean, Txinan urte berriaren ospakizun festak egiten dituztela, oso koloretsuak eta biziak», zioten. Horrela, «egokia iruditu zitzaigun hango pertsonaia hartu eta presatzea», azaldu zuten: lehoiak, herensuge luze-luzeak.

«Lan dezente eman diguten arren, hauen modeloak prestatu ditugu», argitu zuten eta horietan eginen dituzte: goma-espumazkoak, Eguberrietako apaingarri dizdiratsu eta koloretsuak berrerabiliz, lau lagun hauek erakutsiz, umeek euren

eskulanetarako trebetasuna landuko dute: «Gure asmoa, aurrenekoa, ongi pasatzea da; ikastea ere bai; eta gero, noski, ihoteetan guk gerok egindako mozorro hauekin ateratzea», nabarmendu zuten.

Tailer hauetan parte hartu nahi izanez gero, gaur eta bihar dira izena emateko azkeneko egunak, Maimur edo Astiz liburudendetan, eta haur bakoitzeko 4 euro ordaindu behar dira «materialeterako», argitu zuten.

Dena den, «ilbelta aldera beste saio bat» egiteko asmoa azaldu zuten.

LAZKAOTXIKI

BAT-BATEKO SORGINA

Xabier Amurizak
aukeratutako Lazkao Txikiren bertso eta irudi onenen bilduma.



Xabier Amurizak abestuek

abenduaren 16, 17 eta 18an **berria**rekin



+6,95€

Laguntzaileak: Lazkaoko Udala Euskaldunok behar dugun **berria**

ASTEASU ▶ MENDIA

Joxan Azkue mendizalea zendu da Pirinioetan elur-jauzi batek harrapatuta

Unai Otamendi andoaindarrarekin batera Anayet gailurrera zihoazela izan zuen istripua pasa den ostiralean; atzo goizean aurkitu zituzten gorpuak



Pirinioetako Anayet gailurraren irudia; Portalet mendatetik abiatu eta bertara zihoazela izan zuten istripua bi mendizaleek. HITZA

IMANOL GARCIA

Joxan Azkue asteasuarrak (38 urte) eta Unai Otamendi andoaindarrak (32 urte) heriotzarekin egin dute topo mendian. Iragan ostegunean abiatu ziren Pirinioetara, Anayet izeneko gailurrera igotzeko asmoarekin. Ostiral goizean ekin zioten ibilaldiari mendiko eskiekin, Portalet-eko mendatearen (Huesca, Espainia) ondoan furgoneta utzi ondoren. Ibilbidea hasi eta gutxira elur-jauzi batek harrapatu zituen biak. Joxan Azkue Aizkardi Mendi Elkartekoa zen eta Unai Otamendi Andoingo Euskalduna taldekoa.

Bi mendizaleen famiartekoei eman zuten alarma-deia igande gauean, haien berririk ez zutela eta. Huesca-ko Guardia Zibileko mendi-taldeek erreskate lanak hasi zituzten helikoptero batekin atzo goizean eta, furgoneta topatu ondoren, 09:30ak aldera aurkitu zituzten gorpuak elur azpian. Bi mendizaleen hilotzak Jacako erietxera eraman zituzten, bertan autopsia egiteko. Gaur ekarriko dituzte Gipuzkoara. Joxan Azkueren aldeko hileta elizkizunak gaur izango dira, 20:00etan, Asteasun.

«Beti laguntzeko prest»

Joxan Azkueren familiako bozeramaileak HITZARI azaldu dienez, «segurtasun neurri handiak zeramatzaten ibilaldian bi mendizaleek. GPSa eta elur-jauzien inguruko segurtasun sistema berrienak zituzten,

MENDI KUTTUNA

Joxan Azkueren mendi kuttuna Ernio zen. Erniozaleak elkarteko sortzailea eta kidea izan zen asteasuarra

kide bati elur-jauzi batek harrapatuz gero, besteak hura topatzeko. Baina biak elkarrekin zihoazen eta elur-jauzi berak harrapatu zituen». Azkue pertsona zuhurtzat zuten bere ingurukoek. «Koadrilan berak jartzen zuen zuhurtzia», dio familiaren bozeramaileak. «Erbateko bermea ematen zuen egiten zuen guztian», gaineratu du.

Joxan Azkueren heriotzak ezustean hartu ditu eskualdean hainbat lagun eta udalari, ezaguna baitzen batez ere bere mendizaleetasunagatik. Arkitektoa zen ogibidez, eta Altzo, Bidegoian eta Aia herrietako udal arkitektoa zen. Kirolzalea eta kulturzalea zen, eta hainbat ekintza bultzatu eta horietan parte hartu zuen. Esaterako, aste honetan egitekoa zen Asteasuko XI. Mendi Astearen antolatzaileetako bat zen. Ezbeharrak dela eta, Asteasuko Udalak bertan behera utzi ditu Mendi Astearen ekitaldi guztiak. Azkue izan zen egitasmo honen bultzatzaileetako eta antolatzaile lanetan jarduten zuen.

Beste egitasmo batzuk aurrrera ateratzen lagundu zuen. Erniozaleak elkarteko sortzailea eta kidea izan zen. Ernioko gurutzak 50 urte bete zituenean ekitaldia antolatu zuten. Hortik aurrera, bi urtean behin Erniopeko ibilaldia antolatu zuten elkarteak, mendiaren magalean dauden zortzi mendiak lotuz. Honen guztiaren antolakuntzan gogoz hartu zuen parte. Izan ere, Ernio bere «mendi kuttuna zen, eta sarritan joaten zen bertara». Familiaren bozeramaileak azaldu duenez, «beti zegoen laguntzeko prest. Zerbaiterako bere laguntza eskatzen zitzaionean beti ematen zuen baiezkoa».

hilberriak eta urteurrenak ▶



Joxean Azkue Arrastoa

(udal arkitektoa)

Zure jarrera apal eta gertutasunagatik oroituko gara



Bidegoiango Udalak eta lankideak

BIDEGOIAN, 2005eko abenduaren 13a



Joxean Azkue Arrastoa

(udal arkitektoa)

Mila esker beti erakutsi diguzun jarrera on eta zintzoagatik



Altzoko Udalak eta bertako lankideak, Imaz Bertsolaria eskolako kideak eta altzotar guztiak

ALTZO, 2005eko abenduaren 13a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guzietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



ALEGIA ▶

Afrikako perkusio ikastaroa antolatu dute

Alegiako Udalak Afrikako perkusio ikastaroa antolatu du 12 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat. Ikastaroa Kultur Etxean emango dute hilaren 20an, 21an eta 22an, 16:00etatik 19:00etara. Bertan izena eman nahi duenak ostirala bitarte, hau da, hilaren 16a arte izango du aukera. Ikastaroa dohainik izango da.

ALEGIA ▶

Pirritx eta Porrotx ostiralean Kultur Etxean

Galtzaundi Euskara Taldeak, Alegiako Udalarekin elkarlanean, Pirritx eta Porrotx pailazoen *Maitte zaitut* ikuskizun berria antolatu du ostiralean, hilaren 16an, 18:00etan, Kultur Etxeko batzar aretoan. Sarrerak salgai daude Alegiako Kultur Etxean eta Galtzaundiren egoitzan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinikak 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leizazaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIZARTEA

Honduras, India eta Ekuador laguntzeko Merkatu Txikia abian

Igandea bitarte izango da zabalik herriko plazako lokaletan; harrera ona izaten ari dela azaldu du Ibarrik Misio Taldeak



Ekuador, India nahiz Hondurasko produktu tipikoak eskuragai izango dira Merkatu Txikian. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun ireki zituen atea Ibarrik Misio taldeak antolatutako Merkatu Txikiak, eta datorren igandera bitarte, hau da, hilaren 18ra arte, egongo da zabalik. Ohiko moduan, Ibarra-ko San Bartolome plazan kokaturiko parrokiako lokaletan jarri dute, eta larunbata bitarte egun osoan egongo da irekita, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era; igandean, berriz, goizez zabalduko dute, 10:00etatik 14:00etara.

Bertan lortutakoa Ibarrik Misio Taldeak dituen 4 proiektu laguntzeko baliatuko dute. Indian bizilekuak, barnetegi bat eta putzu bat eraiki nahi dituzte, Hondurasen behar dituz-



Harrera ona izaten ari da bere hasierako egunetan. I. TERRADILLOS

tenentzat etxeak eraikiko dituzte, eta Ekuadorren, berriz, lehen eraikitako aroztegia handitu nahi dute elkartekook. Proiektu horiek guztiek, bertako herritarren giza, heziketa eta osasunaren garapena dute helburu.

Hain zuzen ere, elkarrekin laguntza bideratzen duen lurral-

de horietara egindako bisitetatik ekarritako bertako produktu tipikoak izango dira eskuragai Merkatu Txikian: Indiako boltsoak, kuxinak eta karpetak, edo Ekuadorreko zapiak, tapizak eta karterak, besteak beste.

Horretaz gain, Tolosaldeko dendariak nahiz norbanakoek

HELBURUAK ▶

Ibarrik Misioa Taldea irabazi asmorik gabeko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde Katolikoa da. 1997. urtean hasi zen lanean, eta aurten hartu du Gobernuz Kanpoko Erakunde izaera. Lau proiektuekin ari dira lanean; beraz, horietara bideratuko dute Merkatu Txikiarekin lortutakoa:

INDIA

Mumbai. Kalean bizi den jendearentzat bizilekuak eraikitzea.

Gujerat. Barnetegi bat eraiki nahi dute. Bestalde, bertako herritarrek urik gabe daudenez, putzu bat egin nahi dute.

EKUADOR

Santa Rosa. Elkarrekin laguntzaz eraiki zen aroztegia handitzeko asmoa dute.

HONDURAS

Suyapa. Bertan etxeak eraikitzeko bideratuko da laguntza.

bi asteetan zehar lokalean utzitako pitxiak, jostailuak, arropa eta bestelako materiala ere eskuratu ahal izango dute bertaraten direnek.

Lehen bi egunetan merkatuak izan duen harrerarekin oso gustura ageri da Ibarrik Misio Taldea. «Jende asko agertu da, eta eskertzekoa da; merkatuak irauten duen bitartean ere hala izatea gustatuko litzaiguke; izan ere, gero eta herritar gehiagok parte hartu, herri txiroetara bideratuko dugun laguntza handiagoa izango da», azaldu dute, jendea gonbidatuz datozen egunetan ekimen honetan parte hartuzaten.

Bestalde, Ibarra-ko Merkatu Txikian soberan geratzen den materiala Tolosako Laskorain ikastolak antolatzen duen eta Amarotzen antolatzen duten merkatuetara emango dute, bertan dituzten proiektuak laguntzeko.

iragarki laburrak ▶

OHARRAK

Harremanak. Francisca Garmendia Sarasola sendiarekin harremanetan jarri nahi dugu. Deitu, arren, 943 62 48 60 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Gure webgunean eskualdeko berriak sartzeko aukera duzu *Zeuk idatzi* atalean. Animatu eta sartu zure berria! ▶

hilberriak eta urteurrenak ▶



Joxean Azkue Arrastoa

Mendian elur zuria lapur itxuran jausia, kendu digu bizia, baina, inola ere ez, Joxean, gugan utzitako irudi bizia



Tolosako Udala



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Dantza-soka antolatuta dute, eta izena eman daiteke bihar arte, Itzuli tabernan.

Anoeta. GPSarekin orientazio ikastaroa (lehen zatia). Jose Miguel Alonso EHUKo irakasle eta Durangoko Tabira mendizale elkarteak kidearekin. 19:00etan, udalebako bideo aretoa. Mendi Astean.

Tolosa. Atsedena aisialdi taldeak Loiolara irteera antolatuta du hilaren 26, 27 eta 28rako. Gaur da azken eguna izena emateko, Santa Mariako parroki etxean.

Tolosa. Txosna batzordearen bilera, Inauterien inguruan. 19:00etan, Kultur Etxean.

HITZALDIAK

Tolosa. Hezkidetzaren bidea, indarkeria prebenitzeko gakoa. Amparo Tome soziologo, hezkidetzaren inguruan aditu eta Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Institutuko Balioetan Heztea proiektuaren zuzendariaren eskutik. 15:00etan, Errotan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. *La ventana de enfrente*. Bihar, 21:30ean, Gaztebean. Asteazkeneroko zine-klubak 18. urteurrenarekin egingo du bat oraingoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre Irratia
(107.5 FM - 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa eta disko eskainiak...

18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin.

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bitxikeriak eta beste

TOLOSA ▶ Harkaitz Cano idazleak 'Arraragoa da idazten ez duen jendea' izeneko hitzaldia eskainiko du bihar, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta



Harkaitz Cano idazle lasartearrak idazteko grina nondik sortu zitzaion azalduko du, besteak beste, biharko saioan. OARSOALDEKO HITZA

ERREDAKZIOA

Arraragoa da idazten ez duen jendea». Aldarrikapen hori egiteko baliatuko du Harkaitz Cano idazleak Tolosara egingo duen bisita. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, hitzaldia eskainiko du lasartearrak bihar, 20:00etan, Antonio Maria Labaien kultur etxeko bigarren solairuan.

Galtzaundikoek adierazi dutenez, «idazteko grina nondik sortu zitzaion azaltzen saiatu-

ko da Harkaitz Cano; besteak beste, nola zaletu zen, zein autore eta libururekin, eta zergatik idazten duen gaur egun». Horretarako, «psikoanalisi eta memoria» landuko omen ditu idazleak, eta baita beste zenbait baliabide literario ere; «horien artean, nagusiena: gezurra». Idazlanen sorrerak eta sormenaren garapena bezalakoak azaltzeko, hain zuzen ere, *Belarraren ahoa* eta *Neguko zirkua* liburuetako adibideak erabiliko ditu.

Azken lan hori da Canok ka-

leratu duen azken liburua, Susa argitaletxearekin. Ipuin bilduma da, eta izenburuaren jatorrian Parisiko Cirque d'Hi-ver dago; bertan irabazi zuen Paulino Uzkudun boxeolari errezildarrak Jose Teixidorren aurkako borroka. «Canok zirkuaren inguruan dituen oroitzapen pertsonalek sortu dituzte, neurri handi batean, *Neguko zirkua* bildumeko 19 ipuinak».

Zuzenbidean lizentziatua, Lubaki Banda literatur taldeko sortzaileetako bat izan zen

Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975). Ipuinak idazteaz gain, poesia ere jorratu du bere ibilbidean. «Idazle deslekuatuak» interesatzen zaizkio, bere jaioterritik alde egin eta beste nonbait beren lekua bilatu behar izan dutenak. Egun, Euskal Herriko hainbat egunkaritan kolaboratzaile izateaz gain, irriti eta telebistako gidoigile ere bada Harkaitz Cano. Sari dezentente irabazi ditu dagoeneko; azkena, aurrean bertan: Euskadi Saria, *Belarraren ahoa* eleberriarekin.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!